

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

PEÑACERRADA-URIZAHARREKO UDALA

Peñacerrada-Urizaharra udalerriko hiri antolamenduko plan orokorraren testu bategina onartzea

Udalbatzak, 2025eko ekainaren 17an egindako bilkuran, gehiengo osoz erabaki zuen Peñacerrada-Urizaharra udalerriko hiri antolamenduko plan orokorraren testu bategina onartzea, Lurralde Orekako eta Lurralde Antolaketako diputatuaren urtarrilaren 3ko 1/2025 Foru Agindua betez. Foru Agindu horren bidez, behin betiko onartu zen, baldintzak jarrita eta zati batean etenda.

Era berean, HAPOren testu bateginean egindako aldaketak jendaurrean jartzea erabaki zuen, lurzoru urbanizagarriaren eremuak erabiltzeko eta zerbitzatzeko saneamendu-sistema orokor berriari dagokionez (AOP PE.04, PE.05, PE.06 eta PE.07). Horretarako, aldaketa horiek ALHAOn, lurraldean zabalkunderik handiena duen egunkarian edo egunkarietan eta udalaren egoitza elektronikoan argitaratu beharko dira, azken argitalpenetik hilabeteko epean. Epe horretan, interesdunek aztertu ahal izango dute aldaketa, eta udal-bulegoetan eta udalaren egoitza elektronikoan egongo da eskuragarri (www.penacerrada-urizaharra.eus), eta egoki iritzitako alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte.

Peñacerrada-Urizaharrean, 2025eko ekainaren 27an

Alkatea

ALFREDO VICUÑA IBÁÑEZ